BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

- Kontratu mota: ZERBITZUAK
- Prozedura mota: IREKIA
- Espediente-zenbakia: MUBIL 2024/07
- Xedea: MUBIL FUNDAZIOAREN EKITALDIEN KOMUNIKAZIOKO ETA ANTOLAMENDUKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA.

Edukia:

- **Baldintza tekniko partikularren agiria**

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honek barne hartzen du MUBIL Fundazioaren (aurrerantzean, «MUBIL» edo «Fundazioa») xede estrategikoak betetzeko ekitaldien komunikazio- eta antolaketa-zerbitzuak kontratatzea.

2. MUBIL FUNDAZIOAREN TESTUINGURUA ETA ESTRATEGIA

2.1. Aurrekariak eta testuingurua

MUBIL Fundazioa «Etorkizuna Eraikiz» proiektuaren esparruan sortu zen, mugikortasun adimendun eta jasangarriaren erreferentziazko gune gisa, eta haren helburua da Gipuzkoa eta Euskadi mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko nazioarteko erreferentziazko esperimentazio- eta garapen-gune bihurtzea.

2.2. MUBILen helburu orokorra eta helburu espezifikoak

MUBIL Fundazioak, Mugikortasun Adimentsu eta Jasangarriaren Guneak, Gipuzkoa eta Euskadi mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko esperimentazio- eta garapen-gune bihurtzea du helburu nagusi.

MUBILen jarduera honetan oinarritzen da:

- Mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloan nazioartean garrantzia izango duen ekosistema bat eraikitzea lurraldean.
- Gipuzkoa eta Euskadi esperimentazio- eta garapen-gune bihurtzea mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloan.

- Jarduera ekonomiko eta teknologia berria sortzeko gaitasun zientifiko-teknologikoak eta industrialak lerrokatzea.
- Ezagutza transferitzeko eta negozio nitxo berriak sortzeko mekanismoak bultzatzea, enpresa sare berria sortzeko, dagoena eraldatzeko eta enplegu berriak sortzeko.
- Eragile nagusien jarduerak nazioarteko proiekzioa duen lankidetza sare publiko-pribatu batean txertatzea.

Baina lurraldeko enpresa-testuinguruaren eta -errealitatearen ondorioz, MUBILek, ezarritako helburuak garatzeaz gain, mugikortasun adimendun eta jasangarriak ekonomiaren bilakaeran eta energia- eta ingurumen-trantsizioan duen garrantziaren inguruan komunikatu behar du.

Kontua da lurraldeko eragile guztiei (enpresak, herritarrak, unibertsitateak, prestakuntza-zentroak, erakundeak...) informazioa, prestakuntza eta zerbitzua ematea eta ezagutza ekarri eta sortzea, ingurumen-arloan jasangarriagoa izango den ekonomia baterako trantsizioan laguntzeko.

Testuinguru horretan esku hartzen du MUBILeko lantaldeak, balio-katearen maila guztiak aintzat hartzen dituzten komunikazio-ekintzak proposatu eta gauzatzeko. MUBILen jardueraren xede den enpresa- eta industria-eremuan, bai eta erakunde-, hezkuntza-, ikerketa- eta gizarte-esparruan ere.

Komunikazio-ekintzak Urteko Komunikazio Plan batean planifikatu behar dira (Markaren Plataforman [2024] oinarrituta eta MUBILen 2024-2027 Plan Estrategikoarekin lerrokatuta). Urteko Komunikazio Plana garatzeak MUBIL lurraldeko eta nazioarteko mugikortasun adimendun eta jasangarriaren erreferentzia bihurtzeko xedea izan beharko du. MUBILen arrakasta neurtzeko, aintzat hartuko da industria-ehunari, bereziki, eta gizarteari, oro har, emandako balio erantsia: enpresen trantsizioa eta birdefinizioa eta herritarren kontzientziazioa optimizatzea.

3. PROIEKTUAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA IRISMENA

Dokumentu honen lehen puntuan aipatutako kontratazioaren bidez, xedea da **Urteko Komunikazio Plan bat egitea, zeina urtero proposatu eta adostuko baita MUBILen eta agiri honen esleipendun den komunikazio-bulegoaren artean, betiere MUBILen helburu estrategikoak betez.** Azken helburua da komunikazio-ekintzek ondorio positiboak izatea MUBIL Fundazioaren posizionamenduan eta mugikortasun adimendun eta jasangarriaren estrategiaren hedapenean.

MUBILek Marka Plataforma bat du (2024), zeinetan irudi- eta zerbitzu-posizionamenduari buruzko gogoeta-prozesu bat (balio-proposamena) jasotzen baita. Dokumentu hau dokumentu bizi bat da eta interes-taldeei igorritako mezuak eguneratu edo egokitu beharko dira.

**** MUBIL Fundazioaren Marka Plataforma (2024) formalki hala eskatzen duten enpresa lizitatzaileen eskura jarriko da, aurretiaz konfidentzialtasun akordio bat formalizatuta. Dokumentua eskatzeko, enpresa lizitatzaileek mezu elektroniko bat bidali beharko dute mubil@mubil.eus helbidera.***

Aipatutako zerbitzuak premia hauek bete beharko ditu:

3.1 Kanal anitzeko Urteko Komunikazio Plana * proposatu, zehaztu, idatzi, gauzatu eta garatzea eta haren jarraipena egitea.

Urtean behin proposatu eta zehaztu beharko da Komunikazio Plana, eta abenduan aurkeztuko da eta MUBILekin adostuko da hurrengo urteari dagokion plana. Espero da plan horrek MUBILen *brandbook* delakoaren eta Plan Estrategikoaren jarraibideak betetzea, eta MUBILek onartu beharko du urtero.

Komunikazio Plana garatzean, beharrezkoa izango da mezuak osatzea eta proposatutako helburuak bete eta ekintzak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren komunikazio-kanalak dinamizatzea. Enpresa esleipendunak egingo ditu baliabide material guztiak, multimedia motakoak, prentsakoak, sare sozialetakoak, webgunekoak, euskarri digitalak, inprimakiak, liburuxkak, triptikoak, itsasgarriak, mota guztietako euskarri fisikoak, bai eta proposatutako estrategiak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren guztiak ere.

Prentsa Bulegoko zerbitzu independente bat dago, prentsa planari dagokion alderdia diseinatu eta garatzeko. Beharrezkoa izango da Prentsa Bulegoaren eta agiri honetan eskatutako komunikazio-arduradunen artean erabateko koordinazioa izatea.

Urteko Komunikazio Planean komunikazio-helburu hauek zehaztea aurreikusten da:

MUBILEN ETENGABEKO JARDUERA JAKINARAZTEA

a) **Urteko Komunikazio Plana** idatzi eta proposatzea, eta dagokion ekintza-plana egitea proiektuaren hartzaile guztientzat, MUBILen Plan Estrategikoarekin lerrokatuta.
b) MUBILen **Marka Plataforma eta Marka Eskuliburua** (*brandbook*) eguneratu eta egokitzeko proposamena.
c) Komunikazio-planaren **ezarpenaren jarraipena egitea** eta behar diren aldaketak proposatzea, urteko komunikazio-plana MUBILen estrategiarekin bat etor dadin une oro.
d) **Nazioartekotzeko estrategia** MUBILen komunikazioan. Estrategiak, ekintzek eta proiektuek irismen handia izan behar dute komunikazioari dagokionez, Euskal Herri osoan, Espainian eta Europan. Horretarako, positiboki baloratzen da esleipendunak agentziak babestu edo azpikontratatzea intereseko eremuetako (Madril edo Brusela, esaterako) komunikaziorako, MUBILen onespen esplizituarekin betiere.
e) Komunikazio-planarekin hertsiki lotuta egonik modu independentean kontratatuta dauden **beste jarduera batzuk koordinatzea**, esaterako, prentsa-bulegoa edo beste hornitzaile batzuk (ekitaldien koordinazioa, ikus-entzunezkoen teknikariak, programatzaileak, IZFE, animatzaileak, argazkilariak...).
f) **Web-orria eta *landing pages*** direlakoak mantentzea.
    - Oinarrizko edukiak mantendu, idatzi eta editatzea.
    - Grafismoak mantendu, diseinatu eta kudeatzea.
    - Gaurkotasuna eta albisteak mantendu, diseinatu eta kudeatzea.
    - Webguneko edukia hiru hizkuntzatan eguneratzea: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.
    - **Web-orria** eguneratzea eta etengabe hobetzea. Esleipendunaren zeregina izango da MUBIL Fundazioaren web-orriaren eguneraketak kudeatu eta programazio-lana koordinatzea (programazioa beste hornitzaile batek egingo du).
    - Esleipendunak egin beharko ditu MUBILen webguneko eta *landings* direlakoetako aldaketak, plataforman sartu eta edukiak IZFErekin koordinatuta editatuta.
g) **Showroom** delakoaren ikus-entzunezko edukia eta eduki fisikoa (seinaleak eta dibulgazio- eta komunikazio-elementuak) mantendu eta eguneratzea.
h) **Komunikazio-elementuak** mantendu, diseinatu eta kudeatzea.

- Logoak, txantiloiak, aurkezpenak, elementu grafikoak, bulegoko materialak eta abar diseinatu eta prestatzea.
- Txostenak eta dokumentuak: proiektuen garapena erakusten duten informazio-txostenak eta dokumentuak editatzea proposatuko du, beren gain hartuta haien diseinua eta edizioaren jarraipena, betiere MUBILen ikuskapena eta onespena izanik, zeinak bere gain hartuko baititu kasu bakoitzerako adostutako tiradak editatzeko kostuak.

i) **Sare sozialetako komunikazioa** sortu, garatu eta horren jarraipena egitea.
- **Sare sozialen urteko plana** proposatu eta aurkeztea (*community manager* profila).
- Sare sozialetako komunikazioa eta elkarrekintza sortu, kudeatu eta etengabe aktiboki mantenduko ditu.
- Sare sozialetarako argitalpenak eta idazlanak idatzi eta diseinatuko ditu.
- Sare sozialetan argitaratzeko behar diren idazlanak eta elementuak diseinatu eta egitea.
- Web-orria eta sare sozialak aztertzea eta gutxienez alderdi zehatz hauek baloratzen dituzten txostenak aurkeztea:
  - Web-orriaren bisitariak, jatorria, mota, hizkuntzak, etab.
  - Komunitatearen hazkundea (*lead* direlakoen jatorria aztertzea).
  - Elkarrekintza
  - Ekintza nabarmenak
  - Webgunearen eta sare sozialen balorazio orokorra egitea, eta jarraibideak ematea atzeraelikatzeko eta hobetzeko.

j) Prentsako eta beste komunikazio-jarduera batzuetako komunikaziorako eta publizitaterako idazlanak eta elementuak diseinatzea.
- Prentsa-bulegoarekin edo beste komunikazio-talde batekin koordinatuta, prentsan eta publizitatean argitaratzeko beharrezkoak diren idazlanak eta elementuak diseinatu eta egitea.

k) Hileko **Berripaperaren** babesa, optimizazioa eta jarraipena.
- Hilean behin berripaper bat bidaltzen du MUBILek. Berripaperak mugikortasun adimendun eta jasangarriaren eta MUBILen jarduerei buruzko berrikuntzak jasotzen ditu. Bidalketa egiteko kudeatzaile bat erabiltzen da (*mailchimp* aplikazioa), eta berripaperaren edukia, hein handi batean, MUBILen barruan lantzen da, aplikazio egokiekin. Esleipendunak bere laguntza eman behar du *mailchimp* aplikazioaren (edo unean-unean erabiltzen den beste aplikazio baten) barruan hilero txantiloia eta berripapera gauzatzeko; halaber, berripaperen kanpainetan, bidalketa-prozesuan eta diseinuan lagundu eta jarraipena egin behar du, baita bidalketen ebaluazioan ere. Esleipendunaren betebeharra izango da:
  - Berripapera kudeatzen eta prestatzen laguntzea.
  - Aplikazioaren barruan hileko berripapera sortu, bete eta prestatzea, MUBILek aukeratutako albisteak gehituz. Berripaperean bidaliko diren albisteek MUBILen onespena izan behar dute.
  - Hobekuntzak proposatzea berripapera bidaltzeko moduari eta diseinuari dagokienez.
  - Berripaperaren inpaktua baloratzeko txostenak egitea (bidalketa-plataformaren adierazleak aztertuta)
  - Laguntza ematea berripaperaren inpaktuari buruzko txostenak irakurri, aztertu eta ondorioak ateratzeko orduan.

l) Merchandisinga.

- Merchandisingeko eskaintzaren diseinua eta balorazioa.
- Produkzioa kudeatzea eta ekoizleekin eta hornitzaileekin harremanetan jartzea. Merchandisingeko eskaerak eta erosketak zentralizatzea.

MUBIL EKITALDIEN KUDEAKETA ETA EKOIZPENA

a) **MUBILeko ekitaldiak diseinatu, garatu, antolatu eta ebaluatzea.** Ekitaldi hauek kudeatu beharko dira, baita antolatu daitekeen beste edozein ere:
   - Fundazioaren gertakari garrantzitsuak: instalazioen inaugurazioa, urteurrena, etab.
   - MUBIL Mobility Awards
   - MUBIL Mobility Expo (bi urtean behin)
   - MUBIL Day
   - ReImagining Mobility (City Science Lab Gipuzkoa)

   Komunikazio-enpresak halako ekitaldietarako zereginak hauek izatea aurreikusten da:

   1. Ekitaldia hedatzea:
      a. LANDING PAGE direlakoak:
         i. Edukiak diseinatu eta sortzea eta webguneak eta *landing* direlakoak eguneratzea.
         ii. Jarraipena eta eguneraketa.
      b. PRESKRIPTOREAK eta intereseko KONTAKTUAK.
         i. Preskriptoreak eta kontaktuak detektatzea (datu-baseak eta leadak).
         ii. Ekintzaren xede diren preskriptore eta kontaktuekin harremanetan jartzen laguntzea.
         iii. Gerta daiteke proiektu batzuetan laguntzako profil jakin bat behar izatea (esaterako, Project Hunter bat MUBIL Mobility Awards sarietarako). MUBILek berariaz onetsi beharko ditu lizitaziotik kanpo kontratatutako halako laguntza-profilak, bai laguntzaren beharra bai aurrekontua.
      c. MAILING-AK.
         i. E-mailak idaztea.
         ii. E-mailak diseinatzea.
         iii. Aplikazioen kudeaketa.
      d. SARE SOZIALAK:
         i. Sare sozialetan hedatzeko plana.
         ii. Sare sozialetako argitalpenak diseinatu eta idaztea.
         iii. Sare sozialetan argitaratzeko beharrezkoak diren idazlanak eta elementuak diseinatu eta gauzatzea
         iv. Sare sozialen jarraipena eta inpaktua.
   2. Ekitaldiaren espazioa diseinatzea:
      a. Logistikaren proposamena eta kudeaketa eta tokiak.
      b. Koordinazio teknikoa.
      c. Eszenatokia eta ekitaldiaren egitura diseinatzea.
      d. Seinaleak diseinatu, kudeatu eta ekoiztea.
      e. Ekitaldiaren programa, forma eta gidoia diseinatu eta kudeatzea.
      f. Ikus-entzunezko edukia, irudia eta aurkezpenak diseinatu eta kudeatzea.
   3. Prentsa Bulegorako idazlanak diseinatzea edo beste komunikazio-ekintzaren bat egitea:

   a. Publizitateko idazlanak diseinatzea
   b. Bannerrak diseinatzea.
   c. Beste batzuk
4. Inskripzio eta erregistroak kudeatzea: inprimakiak, erregistroak eta abar kudeatzea.
5. **Dibulgazioko eta hedapen digitaleko materiala** sortu eta kudeatzea, esaterako, *aftermovie* direlakoak, ekitaldien grabaketa, streaminga, argazkiak...

b) **MUBILen beste ekitaldi edo saio txikiago batzuk** diseinatu, garatu, antolatu eta ebaluatzea.

Komunikazio digitaleko estrategian, kontuan hartu eta positiboki baloratuko dira teknologia digital berritzaile eta jasangarrien erabilera sustatzen duten, irisgarritasuna errazten duten (askotariko gaitasun tekniko, kognitibo edo fisikoak dituzten pertsonena) eta elkarrekintza eta parte-hartzea areagotzen duten (jolasak, lehiaketak, elkarrekintzarako guneak eta edukien igoera, etab.) proposamen guztiak.

Aurreikusitako ekintza guztiak kostuaren barruan daudela ulertuko da. Esleipendunak aurkeztutako aurrekontuan sartuko dira eskaintzak jasotzen dituen ekintza guztiak, eta ez da kostu gehigarririk onartuko horiek gauzatzeko.

Hautatutako proposamenari dagokionez, MUBILek egokitzat jotzen dituen alderdiak adierazi ahal izango ditu, kontratuaren indarraldi osoan zehar MUBILek une bakoitzean egokitzat jotzen dituen premietara eta berezitasunetara egokitzeko, eta esleipendunak MUBILek egindako iradokizun eta/edo ekarpen guztiak bete beharko ditu.

Kontratatutako kanpainen ekoizpen fisikoaren kostua **balorazio ekonomikotik salbuetsita** geratzen da: inprimatzea, manipulatzea, bidalketak egitea eta beste baliabide material batzuk.

Xehatutako guztiaz gain, zerbitzuak barne hartuko du zehaztutako komunikazio-plataforma osoaren mantentze-lanak, etengabeko eguneraketa eta dinamizazioa egitea (ez da barne hartzen haren mantentze-lan tekniko informatikoa).

Esleipenduna arduratuko da zehaztutako MUBILen Urteko Komunikazio Plana diseinatu eta eraginkortasunez gauzatzeaz.

Esleipendunak diseinatuko ditu bileren antolaketa, koordinaziorako metodologia eta komunikazio-planaren kontrolerako eta jarraipenerako behar den dokumentazioa.

Urteko Komunikazio Planaren barruan, beharrezkoa izango da KPIak (Key Performance Indicators) edo kalitate-adierazleak zehaztea, egindako ekintza bakoitzaren emaitza baloratzeko. Jarraipen horrek aukera emango du ekintzen arrakasta baloratzeko eta hobekuntza-ekintzak ebaluatzeko, bai eta sortutako inpaktua neurtzeko ere.

MUBILek eskumena izango du unean-unean lan horiek beste enpresa batzuekin ere kontratatzeko, dituzten ezaugarriengatik hala eskatzen dutenean.

Enpresa esleipendunak betebeharra izango du kontratua gauzatu bitartean egiten diren produktu eta material guztien kopia bat emateko MUBIL Fundazioari, MUBILek berak adierazitako euskarri eta formatuetan. Aurkeztutako material guztiek MUBILek zuzenean aldatzeko, egokitzeko eta ustiatzeko modukoak izan beharko dute.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 308.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, kontratatutako lanaren ondoriozko jabetza intelektualeko eta/edo industrialeko eskubideak

MUBIL Fundazioari lagako zaizkio, eta hari egokituko zaio horien ustiapen-eskubide guztiak esklusiboki erabiltzea, bereziki, erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak, zeinak ezin izango baitira haren baimenik gabe erabili, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan (Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena, arlo horretan indarrean dauden lege xedapenak erregularizatu, argitu eta bateratzeko) jasotako kasuetan izan ezik. Hirugarrenen edukiak, elementuak edo materialak sartuz gero, enpresa esleipendunak ziurtatu beharko du horien erabilera eta ustiapena MUBILi lagatzen diola.

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE TEKNIKOAK

Deskribatutako lana behar bezala egiteko, enpresa esleipendunak konpromisoa hartu beharko du proiektura diziplina anitzeko talde egonkor bat atxikitzeko. Talde hori gutxienez 3 profesionalek osatuko dute, MUBILen zuzendaritzapean, eta zeregin partekatu batzuk eta beste zeregin espezifiko batzuk kideen artean banatuta, proiektua abian jarri eta pixkanaka gauzatzeko lanari ekingo diote.

Lantaldea, gutxienez, Administrazio Klausula Partikularren Agirietan baliabideak nahitaez atxikitzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten profesionalek osatu beharko dute.

Ekitaldi edo proiektu zehatzetarako, positiboki baloratuko da lantaldean zeregin zehatzak egiteko laguntza-profilak sartzea, esaterako, preskriptoreekin kontaktua izateko edo ekitaldiak koordinatzeko, eta zereginok beti izan beharko dute MUBILen onespen esplizitua.

Proiektuaren arduradunak, gainera, MUBIL Fundazioarekin hitz egingo du, eta pertsona horrek koordinatuko du Prentsa Bulegoa (agiri honetatik independentea den esleipenduna). Arduradun horrek, gainera, kontratatutako beharrak urteko edozein egunetan bete beharko ditu, unean-unean jaiegun eta asteburuetan ere bai, eta harekin etengabe harremanetan jartzeko aukera egon beharko da.

Ezinbestekoa izango da zerbitzua *in situ* ematea. Arduradunak eta beharrezkoa den lantaldeak aurrez aurre joan beharko dute ekitaldietara, MUBILek hala eskatzen duenean.

Gainera, arduradunaren ordezko bat izendatuko da, hura ez dagoenerako, eta proiektuaren arduradunaren esperientzia bera izan beharko du.

Dokumentu eta jarduera guztiak hiru hizkuntzatan egingo dira: **euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.** Proiektu, jarduera eta ekitaldi jakin batzuetan gerta daiteke euskara eta gaztelania soilik erabiltzea. Esleipendunak kudeatu eta kontratatuko ditu dagozkion itzulpenak eta horien kostua, agiriaren barruan.

Hizkuntzaren, irudien eta edukien erabilera ez-sexista eta ez androzentrikoa bermatuko duten komunikazio-politikak aplikatuko dira.

MUBIL Fundazioak edozein unetan, kontratua gauzatu aurretik edo kontratua gauzatu bitartean, aukera izango du edozein baliabide errefusatzeko, baldin eta enpresak ezarritako baldintzak ez dituela betetzen uste badu.

5. METODOLOGIA ETA LANEKO PLANA

Enpresa lizitatzaileak egindako proposamenak barne hartu beharko du hala MUBILen Komunikazio Plana diseinatu, hedatu eta betetzeko metodologia nola laneko plana eta gauzatuko dituen ekintzak.

MUBIL Fundazioaren Komunikazio Planean zenbait ekintza-plan jasoko dira, zeinak barne hartuko baitituzte komunikazio-estrategia eta Komunikazio Bulegoa sortzeko gauzatu beharreko ekintzak, Prentsa Bulegoarekin koordinatuta (agiri honetatik independente den esleipenduna). **Urteko Komunikazio Planean zehaztuko diren ekintzak gutxi gorabeherakoak dira eta alda daitezke, prestazioa ahalik eta ondoen gauzatzeko egokitzat jotzen bada. Hala ere, MUBIL Fundazioak izendatutako kontratuaren arduradunaren aurretiazko baimena izan beharko du.**

MUBIL Fundazioak, lanen garapena eta jarraipena errazteko, zerbitzuaren premien arabera, eskumena izango du enpresa esleipendunari beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak aurkez ditzan eta zerbitzua behar bezala gauzatzeko egokitzat jotzen dituen lan- edo informazio-bilera guztietara joan dadin eskatzeko, eta bilerok aurrez aurrekoak eta/edo telematikoak izan ahalko dira, esleipendunak aukeratzen duenaren arabera.

6. KONFIDENTZIALTASUNA KONTRATUA EGIKARITZEKO ORDUAN

Kontratu honen eremuan egindako lan guztiak konfidentzialak izango dira, eta enpresa esleipendunak ezin izango du kontratatutako lanen edo MUBIL Fundazioak emandako dokumentazioaren daturik erabili, ez eta hirugarrenei eman ere.

Ildo horretan, ezertan eragotzi gabe Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren karatulan ezarritako eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko indarreko arautegitik erator daitezkeen betebeharrak, enpresa esleipendunak eskura dituen baliabide guztiak jarri beharko ditu kontratua gauzatzen ari den bitartean eskura duen informazioaren konfidentzialtasuna gordetzeko, MUBIL Fundazioaren kontratu-arduradunaren berariazko baimena duenean izan ezik.

AMAIA AZPIAZU ANDUAGA - 72729354L

Firmado digitalmente por AMAIA AZPIAZU ANDUAGA - 72729354L
Fecha: 2024.06.24 09:36:31 +02'00'

Mubil Fundazioaren proiektuen kudeatzailea

Amaia Azpiazu Anduaga